

2

ELHUYAR

MARTXOA 1975

R.S.V.A.P.-en Zientzi eraskina

ZUZENDARIA: *Luis Bandrés*

IDAZKARIA: *Andoni Sagarna*

ZUZENBIDEA: *Círculo de San Ignacio. - San Marcial, 26, bajo. - San Sebastián*

OHARRA

Joan den urteko Irailean argitaratu genuen «Elhuyar» aldizkari honen lehen zenbakia eta euskalzaleen artean dohan banatu, ezagu zezaten.

Gure asmoa hiru hilabetero zenbaki bat argitaratzea da, dakizuenetz, baina oraingo honetan badira sei hilabete ere ezer argitara gabe. Gure burua zuritu beharra dugu, beraz, zuen aurrean.

Atzerapena ez da lanak prestatu gabe edukitzetik etorri, harpidedun multzoa biltzeak eskatzen duen denboragatik baizik.

Gure eta lagun askoren ahaleginei esker badugu guttienez behar genuen irakurle multzo hori. Hemendik aurrera gure asmoa zintzoago betetzeko aukera izanen dugu noski eta agintzen dizuegu betetzen saiatuko garela ere.

BATASUNA EKINTZAK DAKAR

Bi urte eta gehiago dira taldekook gure lanari ekin geniola. Lehenaldi batetan lagunarteko ekintza bezala eraman genuen, bakarka, ilunpean heldutasun bat lortzea beharrezkoa ikusten genuelako.

Halaz ere, bagenekien gure lanak ezer gutti balio zezakeela beste indarrekin elkartu gabe iharduten bagenuen. Bildur izan gara halako elkar-

tasun bat lortzea zailegi ez ote zitekeen gure herrian, denok bait dakigu gutti eta elkarrekin erraz haserretzekoak garela.

Gaur bildur hauk uxatzeko bidetan jarriak ditugu. Dialektika hutsak maiz haserrea bakarrik ekartzen duen bezala, ekintzak batasuna errazten du.

Arlo hauetan eta indar hauekin lortu dugu elkartasun bat:

- Donibane Lohitzuneko Udako Euskal Unibertsitatearen kudeatzaileekin. Ihazkoan egin genuen bezalaxe, aurten ere zientzi gaien antolamendua elkarrekin daramagu eta programa interesgarri eta praktikotara heltzeko esmotan gara.
- Industriako zenbait euskalzalerekin. Asko dira gure lantegiak euskaldundu nahi dituztenak, hasi lantokietako xarteletatik eta egunero lanean erabiltzen diren dokumentu, merkatal gutun, dei eta teknika hizkuntzaren alderdi guztietaraino. Epeka epeka, errazenetik zailenera, lantegietako euskalzaleen laguntzarekin euskaratze lanok aurrera eramateko erabakia hartu dugu.
- Jakin editorialak argitaratzeko duen «Fisika eta kimika hiztegia» delakoan lanean diharduten lankide gartsuekin.

Badago, bestetik, ekintza batu-nahi bat zenbaitengan: hor ari zaizkigu Ikastola Federazioa, Gordailu, Iker..., etab., ikastoletarako liburuak argitaratzeko elkartu nahiz. Benetan eta pozik xalotzen ditugu beren ahaleginak eta haien agindura gaude gure saileko ezertan lagun bageneza.

BESTE OHAR BAT

Zenbait artikulutan autorearen iritziz pertsonalak ager balitez, ELHUYAR-en arduradunok errespetatuko genituzke, baina horrekin ez da ulertu behar iritziz horiekin bat gatozenik.